

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarkiak

MUGIKORTASUN JASANGARRIAREN ETA BIDE AZPIEGITUREN SAILA

“Olandinako urmaelaren ingurumena lehengoratzeko proiektua”k eragindako ondasun eta eskubideen hasierako zerrendaren jendaurreko informazioa

Foru Gobernu Kontseiluaren 2026ko uztailaren 28ko 515/2026 erabakiaren bidez, “Olandinako urmaelaren ingurumena lehengoratzeko proiektua”k eragindako ondasun eta eskubideen zerrendari hasierako onarpena eman zaio.

Hori dela eta, indarrean dagoen Nahitaezko desjabetzearen Legeak 17. eta 18. artikuluetan eta lege hori garatzen duen Arautegiak 17. artikuluan ezarritakoaren babespean, aipatutako zerrenda jendaurrean jarriko da 15 egun balioduneko epean, iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Epe horren barruan, argitaratutako zerrendan izan litezkeen akatsak zuzentzeko datu egokiak idatziz aurkeztu ahal izango ditu edonork, edo okupatu beharraren aurka ere agertu ahal izango da, funtseko nahiz formako arrazoiengatik. Azken kasu honetan, adierazi beharko du zergatik jotzen duen egokiagotzat, lortu nahi den helbururako, azaldutako zerrendan jasotzen ez diren beste ondasun batzuk okupatzea edo beste eskubide batzuk eskuratzea.

Alegazioak xedatutako epearen barruan aurkeztu beharko dira, Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrean edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan ezarritako edozein lekutan, Mugikortasun Jasangarriaren eta Bide Azpiegituren Sailaren Lege eta Administrazio Zerbitzuari zuzenduta (Probintzia Plaza, 4 – 6. solairua, 01001 Gasteiz).

Interesa duten erakunde, entitate, korporazio eta partikularrek eskuragarri dituzte lurzatieen planoak eta eraginpekoen zerrenda, Arraia-Maeztuko Udaletxeko ediktu taulan, Arabako Foru Aldundiko Natura Ondarearen Zerbitzuan, eta, ALHAOn argitaratzen denetik aurrera, esteka honetan: <https://irekia.araba.eus/eu/expropiaciones>.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko uztailaren 29a

Bide Azpiegituren zuzendaria

MARÍA ÁNGELES GUTIÉRREZ ONDARZA

Mugikortasun Jasangarriaren eta
Bide Azpiegituren Salla
Departamento de Movilidad Sostenible
e Infraestructuras Viarias



PROIEKTUA / PROYECTO
Olandinako urmaelaren ingurumena lehengoratzeko proiektua
Proyecto de restauración ambiental de la laguna de Olandina

ERANSKINA / ANEXO
Udal Mugartea / Término Municipal: Arraia-Maeztu

FINKA ZK.	TITULARRA	KATASTROKO DATUAK		APROBETXAMENDUA	Esp./Expte. 2026/5		
		POLIGONOA	LURSAILA		ERAGINDAKO AZALERA m²	BEHIN-BETIKOA	ALDI BATERAKOA
Nº FINCA	TITULAR	DATOS CATASTRALES	PARCELA	APROVECHAMIENTO	SUPERFICIE AFECTADA m²	DEFINITIVA	TEMPORAL
1/000	GOMEZ DE SEGURA LOPEZ DE LACALLE, F. JAVIER	3	444	Laborantzarako lurra / Tierra de labor	4.343		
2/000	DIAZ DE ALDA GARCIA M.CRUIZ OCHOA DE ECHAGUEN GOICURIA, IRENE	3	443	Laborantzarako lurra / Tierra de labor	1.309		
3/000	REMON PIPAON, LUIS	3	448	Laborantzarako lurra / Tierra de labor	6.645		169
4/000	DIAZ DE ALDA GARCIA, EMILIO GREGORIO	3	446	Laborantzarako lurra / Tierra de labor	1.993		